



Jose Antonio Maturana, Inmaculada Boneta, Pedro Miguel Etxenike, Alfredo Marco Tabar eta Jose Luis Lizundia, iragan larunbatean, Donostian, urteurreneko ekitaldian. JUAN CARLOS RUIZ / AEP

Akordioaren ehule

Hogeita hamar urte bete berri dira Eusko Legebiltzarrean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legea onartu zutela. Negoziazioetan jardun zuten kideen ustez, aurrerapauso garrantzitsua izan zen, baina bada oraindik zer egiteko.

Ainhoa Sarasola Donostia

Adostasuna. Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legea onartzeko orain dela 30 urte Eusko Legebiltzarrean negoziatzen jardun zutenek hitz horixe azpimarratzen dute. Akordioak lortzeko denek men egin behar izan zuten zerbaitetan, baina, 30 urte geroago, emaitzarekin pozik daude akordioaren ehule lanetan ibili ziren ia guztiak. Nabardurak nabardura, normalizazioaren bidean aurrera egiteko, legea tresna baliagarria izan zela diote gehien-gehienek gaur egun.

Euskarak 80ko urteetan zuen egoera «latz eta aitormenik gabea» gogora ekarri du Jose Luis Lizundia euskaltzainak, orduan EE Euskadiko Ezkerrako legebiltzarkide zenak. Hala ere, norabide onean hainbat urrats garran-

tzitsu eginda zeudela esan du, tartean, hizkuntza batasunaren prozesua bideratuta zegoela eta ikastolen zein euskalduntzearen mundua loraldian zegoela. Aurretik egina zen lanaren garrantzia azpimarratu du Pedro Miguel Etxenikek ere, orduko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu zenak. «Une egokian iritsi zen legea, aurreko erraldoien bizkarratan bermatu baikin. Dena emanez, eskuzabal lan egin zuen belaraldi bat izan zen aurretik, idazleak, euskaltegiak, Euskaltzaindia... Orubea prestatu zuten haiek». Eta orube horren gainean hasi ziren Eusko Legebiltzarreko taldeak Carlos Garaikoetxea lehendakariak gidatutako gobernuaren proiektuaren gainean eztabaidatzen.

EAJ zegoen gobernuan 1982an, 25 legebiltzarkiderek. Herri Batasunak 11 parlamentari zituen; bederatziz PSOEk; sei EEk; beste

sei UCDDk; bi Alianza Popularrek (AP); eta bakarra Euskadiko Alderdi Komunistak (EPK). Guztiekin hitz egin, eta legea adostearan alde egin zuen Jaurlaritzak. Urrutira, AEBetako Konstituzioaren egileengana eta, zehazki, James Madisonen hitzetara jotzen du Etxenikek jarrera hura azaltzeko. «Madisonen beti esaten zuen oinarrizko lege batek adostasuneko izan beharra daukala, denek gauza askori men eginez lorturikoa. Jaurlaritzak eta EAJk beti ulertu zuten horrela, eta nik neuk legearen aurkezpenean bertan azaldu nuen lege malguta, irekia eta alderdi askotan aldatzeko modukoa izan zitekeela».

Baina ez zen bide erraza izan, sailburu ohiaren hitzetan. «Adosten zaila izan zen legea. Esango nuke bestearen helburuekiko guztiok genituen beldurrak eta aurreiritziak izan zirela zailtasunik handiena. Baina elkarrizketa

zintzo eta argiaren bidez, gai izan ginen adosteko».

Prozesu «luzea eta konplikatua»

Negoziazio prozesua luzea izan zela kontatzen du Lizundiak, «luzea eta konplikatua». EAJ eta EEren artekoak izan ziren lehenik elkarrizketak. EEren estrategia ez zen osoko zuzenketa aurkeztea, «testua hobetzea» baizik, eta, horretarako, 60 zuzenketa partzial aurkeztu zituen taldeak. «Gauza asko onartu ziren, beste batzuk ez, baina, azkenean, alderdi biok, kostata, %100 adostea lortu genuen». Koldo Mitxelena «atzetik bultzatzen» ibili zela gogoan du, baita Etxenike, Garaikoetxea eta Ramon Labaien Kultura sailburu zena ere, besteak beste. «EAJk ez zuen gehiengo osorik, eta, 60 legebiltzarkidetatik HBko 11k ez zirenez joaten, aprobetxatzen zuen lege batzuk negoziatu gabe bere

kontura ateratzeko. Baina kasu honetan Mitxelena aholkuei men egin zien, eta saiatu zen besteekin adosten».

Beste talde batzuek ere aurkeztu zituzten zuzenketa, Lizundiak gogoan duenez: «APk bi osoko zuzenketa aurkeztu zituen, sozialistek 26 eta PCEk 11. Tamalez, HBk ez zuen parte hartzen garai hartan». Bigarren negoziazio txandan EAJ eta EE sozialistekin negoziatzera eseri ziren, eta haiekin «%70eko adostasuna» lortu, Lizundiaren hitzetan. Ondoren, UCDrekin, «gutxiago», baina adostasun batzuk lortu zituzten, euskaltzainaren hitzetan.

Etxenikeren aburuz, «negoziazioa zailen egin zitzaion alderdia, bere barne egoeragatik, EAJ izan zen». Xehetasunetan sartu gabe, «Garaikoetxeak, Labaienek eta EAJk elegantziaz, malgutasunez eta inteligentziaz jarduten» jakin zutela uste du, «beste alderdietatik lagundu zutenek egin bezala». Horregatik, testua «guztien obra», bat dela dio sailburu ohiak, «denek men egin behar izan zutelako», Etxenikeren hitzetan. «Negoziazioetan aritu ziren kideei zozia, maila handi batean, legea



Etxenike, Hezkuntza sailburu zela, 1982ko eztabaidan. EUSKO LEGEBILTZARRA



Lizundia, EEko legebiltzarkide zela, 1982ko bilkuran. EUSKO LEGEBILTZARRA

ren arrakasta; lan bikaina egin zuten, eskuzabaltasunez eta ikuspegiz jokatu, eta eskertzen diet.

Beste oztopo batzuk ditu gogoan Lizundiak. «Madrilgo gobernuak sei artikulu eraman zituen Auzitegi Konstituzionalera; hirutan arrazoi osoa eman zigun, batean ez, eta beste bi paragrafoetan ere ez». Hainbat herri administrazioetan gaztelaz soilik egiten zen inguruan gogoratzen du Lizundiak trabarik handienetako bat. «Parlamentuan onartu zuen, nahiz eta sozialistek eta UDCh ohartzarazi Konstituzionalera eramango zutela. Hasieran EAJ ere ez zegoen oso ziur, 'hau atzera botako digute', esaten zuten, eta nik esan nien botatzekotan bota zezatela atzera Madrilen. Hori azkenean negoziatu ezinda geratu zen».

Oinarriko printzipioak

Negoiazioetan agian pisu gehien izan zutenak bai, baina Etxenike eta Lizundia ez ziren negoziatzailerak bakarrik izan. Orduko eztabaidak ongi gogoan ditu Inmaculada Bonetak ere, orduan EAJko legebiltzarkide zenak. «Guztien adostasunerako gogo, izpiritu irekia, malgutasuna eta Etxeniketik atzetik egindako lana» izan ziren, haren ustez, arrakastarako gakoak. «Guztiok genuen garbi euskara ezin zela izan elkarren aurka baliatzeko arma bat».

Zailtasunen gainetik, ados jarri izanaren garrantzia goraitzen du Jose Antonio Maturanek ere, legebiltzarkide sozialista ohiak. «Oso jarrera ezberdinak genituen legeari eman beharreko ikuspe-

giak; euskaldun ez zirenei kalte egingo ote zien, bazterketarik sortuko ote zuen... Eztabaida horiek izan genituen alderdi sozialistaren barruan, baina uste baino hobeto joan zen; ez zen tentsio handirik izan, ez alderdian, ezta negoziazioan ere».

Alde denen aurreiritziak gainditzeko sukalde lan handia egin zutela dio Maturanek. «Sailburu gazte eta adoretua zen Etxenike, baina malgu jokatzekoa jakin zue-na; adostasunen aldeko emakumea zen Boneta; funtsezkoa izan zen Lizundiaren lana; baita Alfre-



Bestearekiko guztiok genituen beldurrak eta aurreiritziak izan ziren zailtasunik handiena»

PEDRO MIGUEL ETXENIKE
Eusko Jauriltzako Hezkuntza sailburu ohi

«Legea egitean gure utopia ez zen ase; orain, falta dena garatzea da obligazioa»

JOSE LUIS LIZUNDIA
EEko legebiltzarkide izandakoa

do Marco Tabarrena ere... eta azkenean lortu genuen».

Adostasuna aipatzen dute denek legearen oinarri gisa. Baita Etxeniketik ere, «gizarte kohesioa ezin zela izan elkarren aurka baliatzeko arma bat».

«Herriarrek hizkuntza aukeratzeko duten askatasunean oinarritutakoa dela, eta hori modu errealean eraginkorrean errespetatzeko de-

non betebeharrak oinarri duela». Haren hitzetan, «printzipioak irimotusenez defendatu behar dira, malgutasunez eta pragmatismoz aplikazioan». Ildo horretan, ohar-tarazi du «elebitasun osoa lortu nahi baldin bada horrek berarekin molestia batzuk dakartzala; «ez dago gizarte elebidun bat lortzea molestiarik gabe, eta hori esaten duenak edo ez daki zertan ari den, edo ez du jakin nahi».

Etorkizunari begira

Legeak egindako bidearekin pozik dago Maturana, «elebitasuna gizartearen errota delako» orduetik. Garai hartan UCDeko parlamentari izandako Alfredo Marco Tabar da legearen garapenarekin kritikoen, baina ez Lizundia edo Etxenikeren arrazoiengatik, «legea aplikatzeko gehiegizko presaa» egon dela eta «euskal hiztun ez diren askorentzat kalbarioa» izan dela iritzita baizik. «Hala ere, nik berriro onartuko nuke», dio, «garapenean eginiko akatsak zuzendu daitezkeela uste baitut».

Legeak «elebitasun osoa» duela helburu gogoratu du Etxeniketik. «Oraindik, zoritxarrez, urrutit gaude horretatik hainbat alorretan. Egun zenbait esparrutan oraindik orain ez da posible euskaraz bizitzea modu errealean eraginkor batean», haren ustez.

Legea tresna baliagarria izan dela uste du Lizundiak ere, baina ez duela behar bezalako garapena izan. Irakaskuntza eta komunikabideen alorrean ikusten ditu aurrerapauso garrantzitsuak. «Zenbait gauza gero etorriko ziren lege sektorial batzuen garapenean esku utzi ziren negoziatzean, eta gaur da eguna batzuk oraindik ez direla egin, administrazioaren alorrean batez ere», salatu du. Ertzaintza, Osakidetzak eta herri administrazio batzuk —Udal Legea eta foru aldundietakoak sumatzen ditu faltan, batez ere— aipatu ditu, besteak beste.

Etorkizunari begira legea garatzea edo beste bat egitea, zer behar ote den ez dakila dio Etxeniketik. «Baina ni, oraino, tentu handiz ibiliko nintzateke, lege honek, malgua eta irekia izanik, potentzialitate ikaragarria baitu garapenerako». Lizundiaren ustez ere, egungo testua «garatzea eta gaurkotzea» litzateke egokiena. «Ez dut uste lege berri bat egitea uste honetan batera zuhurra denik, Madrilek, estatuak, alegia, orduan baino indar askoz ere handiago baitu». Horren ordez, lege sektorialen bidez «behegoz» legea garatzea hobesten du. «Legea egitean gure utopia ez zen ase; bakoitzak izango du berea orain ere, baina uste dut urratsik urrats falta dena garatzea dela obligazioa».

Etzi BERRIAN: Eusko Legebiltzarreko alderdiek euskararen legez egiten duten balorazioa, eta aurrera egiteko asmoak.

Bekaizkeriaz, eta etsipenez

Hasieratik motz geratzen zela iritzita ere, Nafarroatik lege berriari miraz ere begiratu izan zion Sagrario Alemanek. Euskal Herri osorako legea nahi luke.

A. Sarasola

Sentimendu kontrajarriekin begiratzen zion Sagrario Alemanek legearen sorrerari. «Nafarroatik begiratu, alde batetik neurri batean bekaizti naiz, inbidia ematen dit, pauso batzuk ekarri dituelako eta Nafarroakoa baino hobea badelako». Baina, aldi berean, «etsipenez» ere hitz egiten du, «30 urteren ondoren euskaraz ez dakiten haurrak eta gazteak badirelako».

Legea onartu aurreko urteetan euskararen egoera zein zen gogoratu du Alemanek. Herri mugimendua hasia zen, eta baziren taldeak normalizazioaren aldeko lanean, «batez ere irakaskuntzan, ikastolak, helduen euskalduntze eta alfabetatzean...». Baziren, halaber, euskarazko komunikabide gutxi batzuk, eta administrazio zenbaitetan hasiak ziren neurri batzuk hartzen. Euskara batua ere aurrerapauso handia ekarri zuen, gogora ekarri duenez. «Beraz, bazen nolabaiteko iratzartze bat; lana egiten hasia zen, eta pausok ematen ari ginen».

Testuinguru hartan sortu zen EHE Euskal Herrian Euskaraz aurkandea, 1979an, «erreibindikazioa eta salaketa praktikaren bidez egiteko». Hastapenetatik parte hartu zuen Alemanek, «ikusten zelako nahiz eta alderdi abertzaleak teorian euskaltzaleak izan askotan ez zirela benetan teoria horretatik proxiera pasatzen». Administrazioari normalizazio planak egiteko, euskarazko telebista sortzeko, hizkuntza paisaia euskalduntzeko eta euskarazko irakaskuntza bermatzeko aldarriak eraman zituzten kalera, besteak beste, euskalgintza beste hainbat eragilerekin batera. «Esangon nuke, mugimendu horrek guztiak, neurri batean, prestatu zuela lege baten sorrera».

Lege horren traba nagusia zein zen zehaztean lehenik Espainiako Konstituzioa aipatzen zutela gogoan du Alemanek. «Konstituzioak, eskubidearekin batera, gaztelaniaz jakiteko betebeharrak ere aipatzen du, eta ikusten genuen beste lege hori ez zegoela horren parean, euskaraz jakitea ez zuela nahitaezkoa egiten. Kezka garria zen hori». Hala ere, legea

«hankamotz» sortu zela iritzita ere, zenbait aurrerapauso emateko babes bat eskaintzen zuela dio. «Guretzat eskasa izan arren, babes hori ematen zuela ikusten genuen; aldiz, beste batzuek gehiegikeria gisa hartu zuten. Gogoan izan behar da bai Madrilek bai gobernadore zibilek hainbat gauzaren aurrean helegiteak jartzen zizutela, eta guk legea neurri batean kritikatu arren, bestetik legea defentsa gisa ere erabili behar genuen halako erasoan aurrean. Helegite horiek, legea zegoen baino eskasago aterako zela ere pentsatu genuen».

Nafarroan eragina

Legea onartu ondotik administrazio gehiagotan neurriak hartu zirela dio Alemanek, nahiz eta, haren ustez, oraindik aski ez diren eta batzuetan ezer gutxi egin den. Horrek denak, zeharka bada ere, Nafarroan nahiz Ipar Euskal Herrian izan zuen eragina. «Toki batzuetan euskararen balorazio bat baldin badago, prestigio hori besteandako ere ekartzen du, orokorra da, euskara bera da prestigioaren dena». Komunikabideen esparruan, «zailtasunekin Nafarroan, baina irratia eta telebista euskaraz izan zituztela dio, legearen ekarpenen artean».

Irakaskuntzan ere zabaldu zela dio, baina esparru horretan ikusten ditu, agian, ez-betetze larriena. «Uste dut 30 urtean eskolak ez duela eman eman behar zukeena; gaur egungo haur eta gazte guztiak euskaraz jakin beharko lukete, eta zoritxarrez ez da oraindik betetzen, baina lehen baino gehiago zabaldu zen, eta euskaldun alfabetatu gehiago dago». Zenbait arlotan «ausardia gehiago» behar zela uste du. «Larri samarra iruditzen zait 30 urte geroago A eredia hor izatea, gainditua behar luke». Herrizaingoan, Osakidetzan... hainbat esparrutan zer garatua badela uste du.

Aurrera begira, eta Konstituzioaren «traba» oraindik hor dagoela ahaztu gabe, «lege hori hobetzen, garatzen eta bere osotasunean betetzen» saiatu behar dela uste du, «eta ahal bada hobea egin ere bai». Izatekotan, hurrengo Euskal Herri osorako nahi luke.